Baztango Udala

# BAZTANGO KIROL-KLUBEK UDALEKO KIROLDEGIA ETA BAZTAN FRONTOIA ERABILTZEKO ESKAERA. DENBORALDI-AURREA (2018-07-01/2018-09-30).

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| **Eskatutako instalazioa:** ☐ **Frontoia** ☐ **Kiroldegia** | | | | | | |
| **Kirol-kluba:** | | | | **Helbide soziala:** | | |
| **FIK:** | | | **Erregistro zk.:** | | | |
| **Kirol-klubeko burua:** | | | | | | |
| **Harremanetarako pertsona:** | | | | | **tel.:** | **helbide elek.:** |
| **Kirol-mota** | **Maila** | **Egunak*** | **Ordutegia** | **E/KKE/TX**** | **Datak (hasi/akitu)** | **Monitore nahiz entrenatzaileen hileko diru-saria** |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |
| | | | | | | |

* Zehaztu: al.-ar.-az.-og.-ol.-lr.

** E: entrenamendua; KKE: klubeko kirol eskola; TX: txapelketa

**ESKAERA:**

1. **Epea: 2018ko ekaikanaren 27ra arte.**
2. **Aurkezteko tokia: Baztango Udaletxeko erregistroan (Foru plaza, zk.g. 31700 Elizondo) edo erregistro elektronikoaren bidez.**
3. **BALDINTZAK:**
   - 01. **Ordutegi erabilgarria:**
     - a. **Uztailaren 1etik abuztuaren 31ra arte: al.-ar.-az.-og.-ol.-lr.: 9:00-22:00**
     - b. **Irailaren 1etik 30era arte:**
       - i. **Astelehen, astearte, asteazken, ortzegun eta ortziraletan: 14:00-22:00.**
       - ii. **Larunbatetan: 9:00-22:00.**
   - 02. **Udalak kirol-instalazioak erabiltzeko baimena edo ezezkoa ematerakoan kasu bakoitzean aldiberean gertatzen diren inguruabarrak kontuan hartuko ditu.**
   - 03. **Udaleko beharrak direla eta, Baztango Udalak emandako baimena bertan behera utz edo/eta baimendutako ordutegia egoera berrira egokitu dezake.**
   - 04. **Baztango Udalak baimendutako programazioa behin baino gehiagotan ez betetzeak edo/eta kirol instalazioen barne araudia ez betetzeak edo/eta Udalak agindutakoa ez betetzeak Udalak emandako baimena bertan behera uztea ekar lezake.**
   - 05. **Kirol-klubak beharrezko kirol-materiala eraman beharko du.**
   - 06. **Instalazioan kirol-oinetako eta arropa egokiekin sartu behar da. Kiroldegian sartzeko zola idor eta garbia duten oinetakoak beharrezkoak dira (harri koxkorrak, etab.)**
   - 07. **Kiroldegian, bakar-bakarrik, baimendutako jarduerari dagozkien materialak sartu daitezke eta inoiz ibilgailurik, karrozik, orgik, eskorgik edo bertzelako edozerik zola hondatzen ahal duena.**
   - 08. **Eskatzaileak kiroldegiko zola ez hondatzeko beharrezko neurriak hartu beharko ditu.**
   - 09. **Eskatzaileak kiroldegiaren ardura izanen du baimendutako egunetan eta ordutan. Hau da, Kirol-klubak antolatutako kirol-jardueren erantzukizun osoa, bai eskoletan bai entrenamenduetan bai partidetan, kirol-klubarena izanen da. Hori horrela, kiroldegian bakar-bakarrik sartzen ahal dira eskatzaileak baimendutako pertsonak eta eskatzailearen ardura izanen da horien eta horren kontrola.**

Sinadura eta zigilua

Baztan, 2018ko ____________aren ____an